



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

zinegotziak

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2015eko martxoaren 16an, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Begoña Balerdi Urdampilleta izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

22/2015 Dekretua
38/2015 Dekretua
55/2015 Dekretua
58/2015 Dekretua
62/2015 Dekretua
68/2015 Dekretua
83/2015 Dekretua
89/2015 Dekretua
92/2015 Dekretua
121/2015 Dekretua

25/2015 Dekretua
39/2015 Dekretua
56/2015 Dekretua
61/2015 Dekretua
65/2015 Dekretua
82/2015 Dekretua
86/2015 Dekretua
91/2015 Dekretua
106/2015 Dekretua
133/2015 Dekretua



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

141/2015 Dekretua
151/2015 Dekretua

142/2015 Dekretua
153/2015 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

HIRUGARRENA. LIZARTZAKO UDALA ETA TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA (TKT)ren ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Idazkaritzak 2015eko martxoaren 6an egindako txostena ikusi da, Lizartzako Udala eta TKT-ren artean, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzeko lankidetzarako hitzarmen-administratiboa onartzeko aplikatu daitezkeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Lankidetzarako hitzarmenaren negoziatutako testua 2015eko martxoaren 2an jaso da udalean.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2015eko martxoaren 6ko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

ERABAKIA

LEHENA. Lizartzako Udalak eta TKT-ren artean, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzeko lankidetzarako administratiboa hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan:

„LIZARTZAKO UDALA ETA TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA s.m.

2015-2017. URTE ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Lizartzan, bi mila eta hamabosteko martxoarenan.

BILDURIK

Batetik, MARIA BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA, NAN: 15.954.680 V, Lizartzako Udaleko alkatea, haren izenean eta ordeztatu duena, ekintza honetarako behar bezala ahalmena izan denak udal bilkurak ohiko batzaraldian hartutako erabakian.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Eta bestetik, IÑAKI OLAETXEA AMONARRIZ, NAN: 72475624W, Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.M.ko (aurrerantzean TKT) Lehendakaria, haren izenean eta ordeztuz diharduena.

Bi alderdiok lankidetzaren hitzarmen hau egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

AITORTZEN DUTE:

- I.- Lizartzako Udala eta TKT-k bat egiten dutela euskararen biziberritze eta berreskuratzeko premi eta helburuekin, eta herritarren euskarazko informazio bideak eraiki eta indartzearekin batera, horiek direla hitzarmen honen xede eta funtsa.
- II.- TKT dela Tolosaldeko Ataria egunkari eta astekaria, Ataria Irratia eta www.ataria.info gunearen jabe eta ekoizpen arduraduna.
- III.- TKT-k eraturako euskarazko komunikabide sare honen helburu nagusia, euskalgintzan diharduten beste eragile askorena bezala, euskararen normalizazio bidean ekarpen esanguratsua egitea dela, eskualdean sortzen den informazioa kudeatu eta komunikatuz euskaratik eta euskaraz.
- IV.- TKT-k kudeatzen duen komunikabide sarearen eremua Tolosaldeko eskualdea osatzen duten herrietara hedatzen dela, bere onuradun direlarik bertako herri eta herritar guztiak, tartean, Lizartza.
- V.- Beharrezkoa dela TKT-k aipatu eskualdean egiten duen lanari behar bezalako aitortza egitea ez ezik, bere jardunaren kalitatea ziurtatu eta sendotzeko Udala eta TKT-ren arteko lankidetzaren jardunean sakontzea, aintzat harturik 2013an Udalarik aurkeztutako proiektu komunikatibo bateratua (Galtzaundi hamabostekaria, Txolarre Irratia eta Tolosaldeko Hitza egunkaria bateratuz sortua) eta bideragarritasun plangintza.

Hau guztia honela izanik, LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatu dugu, ondorengo klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA.- LANKIDETZA HITZARMEN honen helburua da TKT-k eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea.

BIGARRENA. LANKIDETZA HITZARMEN honetan, TKT-k jarraian aipatzen diren ekoizpen ildoak garatu eta hobetzen ahalegintzeko konpromisoa hartzen du:



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA


- a) Tolosaldeko Ataria, prentsa: argitaratuko dira zortzi orriko egunkaria astearte, asteazken eta ostegunean, eta astekaria ostiraletan, abuztuan izan ezik.
- b) Ataria Irratia 24 ordutan: gutxienez 4 orduko programazio propioa emitituko da asteleheneetik ostiralera, abuztuan izan ezik; arratsaldean tartean utziko dira eskualdeko Gizarte Eragileen ekarpenez betetzeko.
- c) Internet: ataria.info web gunea eguneratu eta elikatzea urte osoan, etenik gabe.

HIRUGARRENA. TKT-k, bigarren artikuluan aipatu ildoak bideratzeko, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua ere baden heinean, konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Herritarren intereseko produktuak (edukiak, formatu, maiztasun ...) lantzeko ahalegina egingo da. Hedabideen bilakaera azkarra kontuan, gertatzen diren aurrerabideak eten gabe aztertu dira beharrezkoak izan daitezkeen hobekuntzak egiten saiatzeko.
- b) Herri guztietan dugun banaketa sistema hobetzeko neurri bideragarriak hartuko dira.
- c) Ataria marka gizarteratu eta harpide sarea zabaltzeko ahalegin etengabea egingo da.

LAUGARRENA.- LANKIDETZA HITZARMEN honen bidez, Udalak, proiektua indartu eta bere bideragarritasuna bermatzeko ekimen lerro hauek garatuko ditu:

- a) Diru ekarpen zuzena. Egonkortasun ekonomikoa bermatzeko: Lizartzako Udalak *biztanleko 5€* emango dizkio 2015 urtean TKTri; hurrengo bi urteetan, 2016 eta 2017an, biztanle kopurua berrikusi eta KPI igoera izango du.
- b) Publizitatea. Erreferentzialtasuna irabazteko, publizitatea egitea behartuak dauden iragarki ofizialak eta eskelak Tolosaldeko Atarian jartzeko konpromisoa hartzen du Udalak tarifatik %50eko deskontuarekin. Gainerako publizitatea, urteko fakturazioaren arabera negoziatuko dute bi aldeek; hala balitz, urtean-urtean adostutako plangintza komertzialean islatuko litzateke.
- c) Beste euskarriak. Ohiko ekoizpenetik at, Udalaren eta TKT-ren artean osatuko den lan-taldeak adostutako proiektua sustatzeko diru ekarpen bereziak egin ahal izango ditu Udalak.
- d) Sozializazio eta banaketa. Herritarren eta bertako indar eragileen borondatea eta lankidetzaren erakartzeko Udal zerbitzuen kooperazioa izango du TKT-k.
- e) Informazioaren kudeaketa: Udalak berak edo herrian sortzen den informazio jariora sistematikoki trukatzeko neurriak hartuko dituzte Udalak eta TKT-k.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

BOSGARRENA.- Udalaren eta TKT-ren ordezkari osatutako lan-taldeak urtero bilera egingo du. Batetik, hitzartutakoaren jarraipena egiteko, hau da, orain artean gertatu den moduan, hitzartutakoa objetibotasun, pluraltasun eta egokitasunez betetzen ari den aztertzeko. Eta, bestetik, dokumentu honetako hirugarren artikuluan hartutako konpromisoen betetze maila aztertzeko.

SEIGARRENA.- Aipatutako diru ekarpen zuzena (4.a. puntua) honela egingo da: hitzarmenean adostutako diru-ekarpena osoa dagokion urteko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu eta hilabeteko epean jasoko du TKT-k. Urte amaieran, jardunaren oroitidatzia eta Udalaren diru-ekarpen osoa zuzentzeko fakturak edota beraien fotokopia konpultsatuak eta zerga zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

Edozein gisatara ere, Udalaren diru-ekarpena jaso ahal izateko, aurreko ekitaldiko harremana eguneratua egon beharko du.”

BIGARRENA. Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

HIRUGARRENA. Alkateak, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.- MOZIOAK

UEMA

Espainiako Gobernuaren ordezkaria udalen jardunean gauzatzen ari den esku-hartzeak bete-betean harrapatu gaitu UEMA eta bertako udalak. Kontratazioetako hizkuntza irizpideak, diru-laguntzetarako hizkuntza irizpideak, aktak euskaraz bidaltzea edota udalak euskalduntzeko adostutako hizkuntza irizpideak susmopean jarri dituzte. Bi udalek UEMAn, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko hartutako erabakiaren aurka ere jo du Espainiako Gobernuaren ordezkariak.

Horrela, udalen eguneroko jarduna eta udalok euskara sustatzeko egiten ari garen lana baldintzatzen dute. Administrazio publikoak hainbat zerbitzu erdara hutsean eskaintzen dituen bitartean, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko prestatuta gauden udalak dira susmopean jarri nahi izan dituztenak.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Egoera larria da. Euskararen ofizialtasuna bera ari dira zalantzan ipintzen. Teorian euskara zein gaztelania hizkuntza ofizialak dira Euskal Erkidego Autonomoan. Baina, praktikan euskarak, erdara erabili ezean, ez duela balio ofizialik esaten digute errekerimendu eta helegiteen bitartez.

Egoera honen aurrean LIZARTZAko Udalak adierazi nahi du:

- Lizartzako Udalak euskara sustatzeko egiten ari den ahalegina berretsi nahi du. Euskararen bidea beste eragile eta instituzioekin elkarlanean garatzeko konpromisoa adierazi nahi du.
- Gure herria berezia da hizkuntzaren ikuspegitik. Horregatik, udalerrri euskaldunak, euskararen arnaguneak indartzeko, politika eraginkorrak abian jartzen saiatuko gara; hizkuntza politika euskara sailetik harago eraman, eta euskararen arnaguneak duten garrantzia aintzat hartuta, politika orokorraren erdigunean kokatzen saiatuz.
- Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak udalen jardunean eta bereziki euskara sustatzeko neurrien aurka izandako esku hartzea salatu nahi dugu. Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren figura eta lana bertan behera uzteko eskatzen dugu.
- Eusko Jaurlaritzari eskatu nahi diogu euskara sustatzeko ahaleginean ari garen udalerrri euskaldunetako Udalak babestu ditzan.
- Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak deituta, euskaldunoi ezartzen zaizkigun oztopoak salatu eta euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatzeko, otsailaren 28an, 17:30ean, Donostiako Gipuzkoa Plazatik abiatuta egingo den Manifestazioarekin bat egin nahi du Lizartzako Udalak. Herritarrei dei egin nahi diegu mobilizazioan parte hartzeko.

UEMAk aurkeztutako mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

EUSKAL HERRI FEMINISTA ERAIKITZEKO, MARTXOAREN 8ko ADIERAZPENA

LIZARTZAko EH Bilduko udal-taldeak honako adierazpen instituzionala aurkezten du, 2015ko martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko eguna dela-eta:

Emakumeen Nazioarteko Egunean badaukagu zer ospatu eta zer aldarrikatu. Baina, batez ere, nabarmendu nahi ditugu, krisialdiaren aitzakian, botere ekonomiko



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

eta politikoak hartzen ari diren erabakiek pertsonen bizitzetan eta bereziki emakumeengan dauzkaten ondorio lazarriak.

Diskurtso ofizialen arabera, krisia sortu da merkatuak errentagarritasuna galdu duelako. Guretzat, ordea, krisian gaude kapitala ezinezko bihurtzen ari delako bizitza duinak izatea. Krisi-egoera honetan, merkatuen errentagarritasuna handitu nahian, austeritate neurriak jarri dituzte martxan, urteetako borrokaren bitartez irabazitako eskubideak galtzeko arriskuan jarriz..

Ekonomiaren oinarrian etxeko lanak eta zaintza-lanak dauden arren, sistema kapitalistak lan hauek gutxietsi egiten ditu. Ezkutuan geratzen dira, sozialki ez dira errekonozitzen eta ordaindu ere ez. Lan-estatusa bera ukatu egiten die, nahiz eta jakin bizitzaren oinarria direla, lan-indarra sortu eta mantentzen duten lanak direlako. Eta ekonomiaren, aberastasunaren eta lanaren kontzeptuak finantzen munduarekin, lan ordainduarekin, lan-“produktiboa”rekin lotzen dira, guztiaren erdigunean jarriz. Merkatu kapitalista jartzen da ekonomiaren erdigunean eta bizitza honen zerbitzura, alderantziz egin orde.

Etxeko lanen eta zaintza-lanen ardura nagusiki emakumeei ezartzen zaiela kontuan izanda bakarrik uler daiteke emakumeek lan-merkatuan duten leku marjinala eta esplotazio bikoitza. Lan-merkatuan emakumeek gizonezkoek baino %36,2 gutxiago kobratzen dute. Lanaldi partzialetan dauden %80,9 emakumeak dira. Lan-merkatuak emakumeak bigarren mailako langile gisa erabiltzen ditu, haien lekua, nagusiki, etxean dagoela defendatzen duelako. Sistema kapitalista eta patriarkatua gainditzeko beharra inoiz baino ageriago agertzen zaigu, bizitza ekonomiaren erdigunean jarri ahal izateko, zaintza-lanak errekonozitzeko, sexuaren araberako lan-banaketaekin bukatzeko, bizitza duinak bizi ahal izateko.

Martxoaren 8 honetan badugu zer ospaturik, bestalde. Aurreko urteko adierazpenean abortuaren kontrarreformaren mehatxua aipatzen genuen. Mugimendu feministarekin batera euskal jendartearen gehiengo batek egindako borrokari esker erreforma gelditzea lortu dugula ospatuko dugu. Dena den, emakumeon askatasunaren eta aniztasunaren kontrako eraso gehiago helduko dira, emakumea emazte-ama fin, otzan eta menpeko bihurtzeko. Patriarkatuaren zutabea den familia-eredu tradizionala, heteropatriarkala, indartzeko neurriak dira.

Emakumeen bizi-baldintzez ari garelarik, ezin ahaztu indarkeria matxista. Indarkeria matxista sistema patriarkalaren adierazpide bat da, adierazpiderik edo ondoriorik larriena. 2014an 5 emakume hil ditu indarkeria matxistak. Indarkeria



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

matxista salbuespeneko gertakizun bat ez den neurrian eta gure egunerokotasunean bizi dugun neurrian, lehen mailako arazoa da guretzat.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, agintaldi honetan udalean parekidetasuna lantzeko egindako lanean sakontzeko konpromiso irmoa adierazi nahi dugu.

LIZARTZAKo udaleko hautetsiok, emakume eta gizon askeen Euskal Herria helburu lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartu nahi dugu:

1. Gure herrian biolentziarik gabeko bizitza bizitzeko eremua izateko bitartekoak jarritz.
2. Emakume elkarte eta mugimendu feministarekin elkarlana bultzatuz.
3. Gure herriko emakumeak bizitza merezi duten bizitza duinak izateko politikak garatuz.

Martxoaren 8an gure herrian mugimendu feministak deituriko manifestazioarekin bat egiten dugu.

Euskal Herri Feminista Eraikitzeke, martxoaren 8ko adierazpena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO MOZIOA

Iragan abenduan, Osasun Saileko arduradunek, Guillermo Viñegra Sailburu ordeak, Rafael Uribarren Gipuzkoako osasun arduradunak eta Iñaki Berraondok (Aseguramendu eta kontratazio sanitarioko zuzendaria), Tolosaldeako alkateon ordezkari bati, OSI, Eskualdeko osasun arreta antolakuntza integrala, aurkeztu zieten.

Aurkezpen honen bidez, 2015arekin batera, OSla martxan jarriko zela iragarri zuten eta honen bidez Tolosaldeko osasun arretak hobekuntzak izango zituela esan ere bai.

OSlak Tolosaldean gauza gutxi aldatuko ditu, arazoa ez baita OSla ezartzea, osasun zerbitzu publikoan klinika pribatu bat egotea baizik.

Klinika pribatuak, ezinezko egiten du zerbitzu integral eta koordinatu bat izatea:

- Nola integratu bi sistema, baten eta bestearen arteko helburuak eta lanerako erak desberdinak izanda. Mila bider adierazi bezala, sistema publikoak herritarrei zerbitzu unibertsala eta kalitatezkoa ematea du helburu, sistema pribatuak berriz, irabazi



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

ekonomikoak. Ondorioz, klinikak herritarren osasunarekin negozio egiteko bitarteko guztiak erabiliko ditu bere enpresa jarduerari ahal duen errentagarritasun handiena ateratzeko. Horretarako, pertsonal ratio txikiagoak edota bestelako neurriak hartuz. Eta neurri horiek kalitatean eragina dute.

- Nola integratuko dira bi sistemak, besteak beste, programa informatikoak ez badaude oraindik orain bateratuta.

Udal honen ustez, OSI honen aurkezpena, klinika pribatuaren legitimazioa eta onarpena gauzatzeko beste pauso bat da. Beste pauso bat, sistemaren pribatizazioaren bidean.

Eskualde honetako OSI egoki bakarra, gainerako eskualde guztietakoa bezala, gestio eta arreta publiko integrala, %100ekoa, duena izan behar du.

Legealdi oso bat daramagu udal ordezkariok, eta beste eragile batzuk oraindik denbora gehiago, berdina adierazten: Osasun Zerbitzu publikoaren beharra eta honen erakusle Tolosaldean buruturiko, onarturiko eta antolaturiko:

Manifestazio, firma bilketa, mozio, adierazpen, agerraldi e.a.

Honen aurrean EJko Osasun Saila, honen guztiaren aurka agertu da, eta Tolosaldeko osasun zerbitzuaren pribatizazioa inposatzen jarraitu du. Udal ordezkari, eragile eta herritarron gehiengoaren nahiari bizkar ematen jarraitu du.

Sarri adierazi moduan, Tolosaldean egiten ari direna, esperimendu bat da, pribatizazioaren esperimendua. Zerbitzu unibertsal eta publiko bat gutxi batzuen negozio bilakatzeko frogatuta.

Sistema publikoan sinesten dugu, sistema publikoa delako osasun arreta hoberena eskaintzen duena, inori bizkar ematen ez diona eta benetan denona dena.

Ez dugu beste inon baina gehiago nahi, baina ezta gutxiago ere, berdina, gure eskubideak, besteenak adina balio dutelako, osasun sistema publiko nahi dugu.

Eta hau gauzatzeko ezinbestekoa da bertako eragileen iritzia jaso eta kontutan hartzea. Udala horretarako prest dago, sistema publiko horren eraikuntzan, antolaketan, parte hartzeko, lanerako, ez ordea OSI publiko-pribatu batetako organo parte hartzailetara joan eta inposaketa hau legitimatzeko.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Inoiz ez da berandu hartutako erabaki okerrak zuzentzeko, Madriden gertatu bezala adibidez. Tolosaldeko bizilagunen osasuna dago jokoan, eta horrek edozein hitzarmenek baino balio handiagoa du.

Honen aurrean LIZARTZAko Udalak eskatzen du:

- Gainontzeko eskualdeetan bezala, gurean ere osasun zerbitzu publikoa bermatzea, gestio publikoa %100ean oinarri izango duena.
- 2011ko azaro aurretik anbulategietan eskaintzen ziren espezialitate zerbitzu guztiak berriz ere bertan ezartzea.
- Klinikaren publikotasuna gauzatzeko ekinbideak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari hastea eskatzea.
- Mozio hau Eusko Legebiltzarra osatzen duten talde parlamentarioei, Osasun Sailburuari eta Gipuzkoako BBNetako talde politikoei igortzea.

5.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko ..etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Begoña Balerdi Urdampilleta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia